

Artarrai Mendi Taldea

Hirurehun bazkide inguru dituen talde hau, 70eko hamarkadan sortu zen. Urtean 40 ekitaldi baino gehiago antolatzen dituzte eta euren helburua Euskal Herriko tokirik ederrenak ezagutzea da, besteak beste.



- Zein urtetan sortu zen taldea?

Artarrai 70eko hamarkadan sortu zen, baina urte gutxi batzuk geroago sute batek erre egin zuen taldearen egoitza eta bertan zegoen material zein informazio guztia. Horren ondorioz Artarrai desagertu egin zen, 80ko hamarkadan beste mendizale batzuek taldea berpiztea erabaki zuten arte.

- Zenbat kide zarete?

Orain adin guztietako 297 kide gara eta egunez egun bazkide gehiago ditugu.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Herritarrei mendi giroan inguruneaz eta aisiaz gozatzeko aukera eskaintzea eta bide batez Euskal Herriko eta inguruetako tokirik ederrenak

ezagutu eta primeran pasatzea. Horrez gain, mendiko kirol ezberdinetan jardutea taldeko giro paregabea.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Astean behin biltzen gara, ostegunetan, 19:30-20:30 bitartean udal liburutegiaren gainean dugun egoitzan (Teresa Murga ikastetxean).

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Denetarik egiten dugu eta berrogei ekintzatik gorako egutegia dugu aurtun ere, hilean hiruzpalau. Mendi irteera eta ibilbideak (inguruan eta Pirinioetan), kainoien jaitsierak, eski irteerak, BTT, argazki emanaldiak,

ikastaroak (eskalada, mendiko neguko teknikak, GPS...) eta abar. Bestalde bazkideei liburu, mapa eta mendiko materialaren mailegu zerbitzua eskaintzen diegu (pioletak, kranpoiak, dendak, sokak...) eta nahi duenari baita federatzeko aukera eman ere.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Modu ezberdinak daude: bilera egunetan egoitzara etorritz, 638050634 telefonora deituz edo helbide elektroniko bidez artarrai@euskalnet.net. Bestalde informazio gehiago nahi izanez gero sarean www.artarrai.com web orria eta www.artarrai.blogspot.com blog-a ditugu.

OKINDEGIA GOZOTEGIA

san antonio

Izelaia, 40
Zubiaurre, 12

Tel. 17 00 63
Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna